



"Euskal Herriko kirolariok ez gaude prest atzera egiteko. Iaz errealitate bihurtu genuen ametsa, ez dugu berriro amets bihurtzen utziko. Kirolariok ez dugu atzera egingo."  
Oso gutxitan entzuten dira hain hitz argi eta zehatzak futbol mundutik baina gaur salbuespen garbia ailegatu zaigu.

Punta puntako 165 futbolari euskaldunek, Athletic eta Errealeko futbolari gehienak tarteko, Euskadi termino kutsatu eta perbertituari muzin egin eta gure herriko lurralde guztiak aintzat hartzen dituen izen bakarraren alde, Euskal Herriaren alde agertu dira.

Hementxe duzue zabaldu duten komunikatua osorik: [euskalherria\\_futbolarien\\_idatzia.pdf](#)